



Parte-hartze handiko jaiak izan dira aurtengo Santakruzak

Eguraldia lagun, jendetza batu da kalean egindako hainbat ekitalditan. / 5-12

AIURRI

Euskaraldiaren atariko hitzorduak

Ostiral honetan, Andoainen, Xaxafest jaialdia. Eta, Urnietan, Bertso-pilota ikuskizuna. Maiatzaren 15ean abiatuko da Euskaraldia, ariketa sozial kolektiboa. / 2-3



25 urte bete dira ETak Jose Luis Lopez de Lacalle Andoainen bertan hil zuenetik / 5



1979ko Santa Krutz jaietan talde ultraeskuindarrek hil zuten Joxe Ramon Ansa Etxeberria / 7

Tradizioari jarraituz, Santa Krutz egunean erromeria egin zuten Urnietako Azkorte ermitan / 6

Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, Euskaldunak igoera lortzeko ametsari eusten dio / 12

Eskerrik asko denboraldian zehar gurera gerturatu zareten guztioi!
Gogoratu kupel desberdinetako sagardoa botilan edo txotx mugikorrean izango duzuela eskuragarri urte guztian zehar.

Txotx bukaera: Maiatzak 11, igandea
Erreserbak: 943 554 917 - 650 266 925
Galarraga baserria, Lategi auzoa 5, URNIETA. @altuna_sagardotegia
www.altunasagardotegia.eus

"Saltsa pixka bat jartzera goaz, giroa sortzera"

IMANOL ODRIOZOLA ETA UNAI GAZTELUMENDI BERTSO-PILOTA

Ekimenez beterik dator maiatza Urnietan, Euskaraldia dela eta: besteak beste, bertso-pilota egingo dute ostiral honetan

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Euskaraldiaren atarian, beroketa-lanetan hasia dago, jada, erronka erraldoia antolatzen dabilen eragile-taldea, bertso-pilota ekitaldia antolatu baitu ostiral honetan, Udal Pilotalekuan. Arratsaldeko 19:00etan ekingo zaio hitzorduari, pilota-eskolako haurren partidekin. Ondoren, 20:00etan bertso-pilotari emango zaio hasiera, askotariko protagonistekin: Alberdi eta Odriozola Urmeneta eta Elizegiren aurka ariko dira. Bien bitartean, doinua eta neurria ipiniko diote partidari Nerea Elustondok eta Unai Gaztelumendi.

Hitzordu berezia izango da, ostiral honetan. Euskaraldia aitzakia gisa hartuta, pilotak eta bertsoak bat egingo duten ekitaldia antolatu duzue.

Imanol Odriozola: Jaialdia 19:00etan hasiko da, benjamine-



Imanol Odriozola eta Unai Gaztelumendi, pilotalekuko harmailetan. **AIURRI**

kin partidekin. Bikote mistoak izango dira, eta, Urnietakoez gain, Zizurkilgo pilota-eskolako

bi kide etorriko dira. Alebinen kasuan, bi mutil bi neskaren aurka ariko dira. Behin hori

amaituta, bertso-pilota ekitaldiari emango diogu hasiera: agurra abestuko dute bertsolariak, guk berotu bitartean. Partidan, gure botilero izango dira Gaztelumendi eta Elustondo.

Unai Gaztelumendi: Hasiera protokolario samarra da, baina bertsolariak harrotzen goazen heinean, partida gelditzen edota adarra jotzen hasten gara. Berez, botilero-lana egiten dugu, baina aholkuak ez dira oso egiazkoak izaten. Saltsa pixka bat jartzera goaz, giroa sortzera.

Nola uztartu errima eta pilota?

U.G.: Bertso onak botatzea baino, saltsa jartzea da helburua, bizitasuna ematea. Bertso-saio ona nahi duenak izango du beste edozein egunetan aukera, baina festa-giroan izango gara ostiralean.

I.O.: Frontoian ere, berdin. Tanto politak egitera goaz pilotariak, gustura gera dadin jendea. Bertsolariak ipiniko duten bizitasuna jokoan ere ikusiko da.

Biak ala biak dira euskal kulturaren adierazle. Nola iritsi zitzaizuen hitzordua antolatzeko proposamena?

U.G.: Euskaraldia antolatzen dabilen taldea jarri zen gurekin harremanetan. Bertsoak berezkoa du hizkuntzarekin lotura eta, Urnietan bezalako herri batean, guraso naizen aldetik, agian, kirol-jarduera batzuetan, kosta egiten da euskara entzutea. Bada, hizkuntzaren arnasguneak asko aipatzen diren honetan, pilota-eskolan, haurrek zein entrentzaileek euskara hutsean jarduten dute. Herri honetan, gakoa da horrelako espazio bat egotea euskaraz lasai zein eroso hitz egin ahal izateko. Hala, aitortza egingo diogu, nolabait, pilota eskolari, euskararen gainean herri honetan duen garrantziagatik.

Nor berean, protagonista bilakatuko zarete ostiral arratsaldean. Dena dela, bietatik zein ibiltzen da txukunago: Imanol bertsoan ala Unai pilotan?

U.G.: Pilotan urte luze ibilitakoa naiz ni!

I.O.: Parranda giroan puntuka egingo nioke kontra, baina...

U.G.: Nik uste Imanol bertsoan uste baino hobea dela... Baina ni pilotan ere berak uste baino hobea naiz... Apustu txikiren bat edo beste egin genezake! (Barreak)

Bultzada baten beharra zegoela ikusita, UKEn pilota saila kudeatzeko ardura hartu zenuen orain

pare bat urte, Imanol. Zein izan da egerari buelta emateko gakoa?

I.O.: Orain dela bi urte sartu nintzen, gutxi gorabehera. Hasieran, gorakada izan genuen eta hori denboran mantentzea lortu dugu. Gutxiak uzten dute pilota, nahiko egonkorra da eskola eta espero dugu horrela jarraitzea. Hori da gure helburua, mantentzea, kalitatezko entrenamentuak eta partidak ematea, pilotaren gaineko harra eta zaletasuna sortzeko. Gakoa? Ondo antolatzea eta frontoian ordu asko sartzea. Ostiraleko jaialdia bezalakoak egiteak erakargarritasuna ematen dio pilotari eta umeei ilusioa pizten zaie horrela.

Urnietako bertso-zaletasunari erreparatuz gero, Unai, osasuntsu ikusten al duzu?

U.G.: Herri honetako euskaldunak oso euskaldunak dira eta nabari da hori. Espero ez nuen jende batek ere ezagutu nau hona bizitzera etortzean. Ni ezagutze-ko, bertsozaleak izan beharko dira, bai! Egia da, ez dela bertsoak entzuteko aukera handirik izaten herrian. Bertsolaritzak, gainera, formatu asko dauzka, dena ez da zortzi bertsolari onenak jaialdi batean jartzea. Guk ostiralean egingo duguna bezalako aukerak ere badaude, eta, beno, bagabiltza, pixkanaka. Bi ikastetxeetan ere banabill haurrekin klaseak ematen, gustura, Imanolen pareko, ikasleei bertsolaritzaren harra sartu nahian. Xoxokan bertso-eskola sortu dugu aurten, sei ikaslerekin. Hemen nabil, nire alea jartzeko ahaleginean.

Iristear da Euskaraldia: maiatzaren 15ean ekingo zaio ariketari. Zergatik da garrantzitsua horrelako ekimenak egotea?

U.G.: Dena eta gehiago behar du momentu honetan euskarak. Jende askorengana iristeko aukera ematen du Euskaraldiak. Batzuri pena ematen digu, soilik, hamabost eguneko kontua izateak. Ea, behintzat, erronka honekin jende gehiago batzen den euskararen alde lana egitera. Gero eta toki txikiagoa dugu, presentzia txikia du euskarak eta, hortaz, ona da horren aurrean kalea hartzea.

I.O.: Gainera, gure kultura ezagutzeko aukera izango da ostiraleko ekimenarekin. Bada sekula bertso-pilota bezalako ekitaldi bat ikusi ez duenik. Horrela, euskararen eta euskal kulturaren alde egiteko modu bat izango da ostiralekoa.



BERTSO PILOTA

MAIATZAK 9

URNIETAKO FRONTOIAN

19:00 HAURREN PARTIDAK
20:00 BERTSO PILOTA SAIOA

ALBERDI ODRIOZOLA
VS
URMENETA ELIZEGI

NEREA ELUSTONDO ETA UNAI GAZTELUMENDI BERTSOTAN

EUSKARALDIA

Xaxafest, Andoaingo lehen hitzordu handia

Euskaraldia gerturatzen ari da eta, hamaika egunez luzatuko den ariketa sozialaren atarian, Andoaingo Euskaraldiak Xaxafest jaia antolatu du. Goikoplazan iragarrita dago hitzordua baina, euriarekin, Ondarreta Herri Eskolako jolastoki estalian izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Euskaraldian parte hartzeko oinarritzko baldintzak euskara ulertzea eta 16 urtetik gora izatea dira. Baina, 16 urte azpiko herritar gazteek ere zeresana dute euskararen biziberritzean. Garrantzi hori aintzat hartuta, Euskaraldia lantzeko haur eta gaztetxoek zuzendutako proposamen didaktikoak ondu dituzte. Hari horri tiraka, Andoaingo Batzordeak Xaxafest jaia antolatzea erabaki du. Datorren maiatzaren 9an izango da Goikoplazan, arratsaldeko 17:30ean hasita. Eguraldiaren aurrikuspena ona ez bada, Ondarretan egingo da azkenik.

Arratsaldean hasita, Xaxafest

17:30ean hasita, marrazketa tailerra eta Gazte Lokalak antolatutako jolasak izango dira. Arratsaldeak aurrera egin ahala, 19:00tan, Egape Dantza Taldekoek Euskaraldiaren kantuan oinarritutako koreografia aurkeztuko dute. 19:30ean, berriz, Zirko kalejira abiatuko da. Eguraldiak lagunduz gero, Goikoplazatik abiatuko dira Juanita Alkain plazatzatxoarino. Tartean, geldialdia egingo dute Plaza Morean. Kalejira Goikoplazan hasi eta bertan amaituko da, beraz. 20:30ean bokata-afariari ekingo diote eta gaueko 21:00tan Arrix-

ku taldearen kontzertuaz gozatu ahal izango da.

Txapak banatzeari ekin diote aste honetan

Ahobizi edo belarriprest rola beteko duten herritarrek txapa soinean eraman behar dute, bereziki, maiatzaren 15etik 25era bitartean. Andoainen ehunka dira izena eman duten euskaltzaleak. Egun hauetan, Zumea kalean hasi dira txapak banatzen. Asteburuari begira, bi aukera gehiago izango dira: lehena, ostiralean, Xaxafest gunean; bigarrena, Zumea kalean, larunbat goizean. Garai bateko Ernaitza liburudendan, zehazki.



Zirku kalejira. A&B SHOWS

ANDOAIN
EUSKARALDIA

Elkar mugituz
egingo dugu

Maiatzak 9 ostirala

GOIKOPLAZA

XAXAFEST



17:30 Ikusbera marrazketa-tailerra.

17:30 Gazte jolasak, Gazte Lokalaren eskutik.

19:30 Euskaraldiaren koreografia, Egape DTren eskutik.

19:30 Zirku Kalejira.

20:30 Bokata-afaria.


21:00 Arrixku taldea.

Eta maiatzean hitzordu gehiago...



TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI ARANDIA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

RUBEN GUREKIN PLATAFORMA ANDOAIN, URNIETA

Elkartasunak batu gaitu

Orain dela aste pare bat, Espainiako Entzutegi Nazionalaren eskutik, Ruben Gelbentzu andoaindar-arbizuarraren eta Jon Lizarribar urnietarraren aurka zabalik zegoen azken auzia behin-behinean artxibatzea erabaki duela jakin dugu.

Bi lagun hauek, bata bestearen alboan beti, elkarrekin pairatutako 22 urtetako jazarpen errepresibo gordinari behin-behineko amaiera eman zaionaren itxuran.

22 urte luze hauetan, lau auzi ezberdin bitarteko, obsesio eta mendeku gosean oinarritutako atxilotze, inkomunikazio, tortura, espetxeratze, jazarpen polizial, judizial, politiko, mediatiko eta ekonomiko latza pairatu dute. Beste kide batzuei gertatu bezala, bihotzean beste mundu berri baten ideiarekin, konsekuenteak izatearen koste pertsonala beraien bizkarren gainean geratuko da. Betirako.

Bide honetan, ez dira inoiz bakarrik egon. Euskaldunon herri honek, ederki asko zaindu ditu beti bere seme-alabak. Jon eta Rubenen kasuan, zabala eta anitza izan da, urte guzti hauetan, mugimendu, kolektibo, koordinadora, laguntalde, gaztetxe, asanblada, talde-autonomo, musika eta arte talde, eta ehundaka norbanakoen partetik jasotako baldintzarik gabeko ELKARTASUN zintzo eta leiala.

Errepresioak gogor kolpatu ditu, baino babes tamainakoa izan da. Sistemen, Estatu ezberdinen ekintza errepresiboak jasaten dituen inor, ezin baita beraien borrokaren objektu izan diren senide, lagun, kide eta herritarren babesik gabe geratu. ELKARTASUNA baita zapalduon askapen lanabesa.

Errepresio isil eta anker honek ekarritako gastu ekonomikoa bere horretan dirau, ordea. 22 urte hauek utzitako faktura ordaintzeke dago. Buruntzaldeko eta Sakanako mugimendu, kolektibo eta talde ezberdinei laguntza eskatzera gatoz, eredu izan diren bi langile familien babesean, zapalkuntza judizialaren jazarpen ekonomikoari hegala moztearren. Jonen eta Rubenen senide eta lagunak gure horretan mantenduko gara.

Azken ekimen baten berri izango duzue. Ruben eta Jon, amaierarte, zuen alboan edukiko gaituzue.

POSTONTZIA

EUSKAL HERRIKO TORTURATUEN SAREA BETERRI-BURUNTZA

Informazio-gunea ireki du Torturatuen Sareak

Joan zen otsailaren 15ean Euskal Herriko Torturatuen Sarea publikoki aurkeztu genuen Donostiako Kursaalean, torturatuak protagonista bilakatu eta milaka eta milaka ahots isilarazi eta ukaturen bozgorailu izateko. Nazio mailako sare hau ehuntzeko Euskal Herri mailako auzolan erraldoi bat egingo genuela adierazi genuen. Ahalik eta torturatu gehienaren artean, ahalik eta modu zabalenean, Euskal Herrian torturatutako inor prozesu honetatik kanpo gera ez dadin. Sarea ehuntzeko bitartekoa, gure



Beterri-Buruntzako herritarren bilkura, artxiboko irudian. SAREA

herriko torturatuengana iristeko tresna, alegia, Kursaalean banatutako karpeta izango zela zehaztu genuen eta, helburu horrekin,

Buruntzaldean Informazio Gune bat zabaldu dugu; eskualdeko torturatuei karpetak helarazteko, banatutako karpetak jasotzeko, zalantzak argitzeko eta beharrezko laguntza eskaintzeko. Info gunea maiatzaren 5tik aurrera zabalik dago Hernaniko Biteri Kultur Etxean, astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00etara. Buruntzaldean tortura pairatu duen pertsona oro sare honen parte egin nahi dugu eta martxan jarri dugun gunetik pasatzera animatu nahi ditugu.

OHARRA

AIURRI, TOKIKOM ADIERAZPENA

Arazo teknikoak

Azken asteotan arazo teknikoak izaten ari dira AIURRI zein TOKIKOM Plataforma erabiltzen duten beste 30 webguneetan. Zehazki, webguneak bisitatzeko erabiltzen den gailuaren eta internet operadorearen arabera, azaleko orriko irudiak eta multimedia elementuak ez dira ondo kargatzen, eta webgunea, ondorioz, desitxuratuta azaltzen da. Arazoaren jatorria Espainiako futbol liga kudeatzen duen LaLiga elkarteak hartutako neurri

judizial batean dago. Zuzeneko partiden erretransmisio piratak ekidin eta bere etekin ekonomikoak babesteko, LaLigak bere esku duen ebazpen judizial bat exekutatzeko eskatu du otsaila hasieran. Ebazpen horren arabera, internet hornitzaileak behartuta daude Ligako partida bat dagoen bakoitzean IP edo helbide parte zabal bat blokeatzera, partiden baimenik gabeko erretransmisioak eragozteko. Helbide horien artean daude hainbat eta hainbat webguneri zerbitzua ematen dien Cloudflare zerbitzuak

erabiltzen dituenak. Hala, estatu mailan 160.000 webgune inguru kaltetzen ditu blokeoak, futbolarekin eta eduki piratekin zerikusirik izan zein ez. Kaltetutako gune horien artean daude TOKIKOMeko guztiak, AIURRI barne. Cloudflare enpresak epaitegietara eraman du LaLigaren jokaera, “gehiegizkoa eta zentzugabea” delakoan. AIURRIk barkamena eskatu nahi dizue erabiltzaile guztioi. Futbol denboraldia – Liga nahiz Champions League– bukatu arte horrelako gorabehera gehiago izan daitezke, zoritxarrez.

www.aiurri.eus

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



- Iritzia
- Postontzia

ETAk erail zuela 25 urte igaro dira

Jose Luis Lopez de Lacalleren urteurrena efemeride biribilera iritsi da eta, horregatik ziurrenik, aurreko urteetan baino parte-hartze handiagoa izan zen. Andoaingo sozialistek antolatu zuten ekitaldia eta bertan izan ziren Lopez de Lacalleren etxekoak



Dani Garcia, Andoaingo PSE-EEko kidea; Maria Jesus San Jose, Justizia eta Giza Eskubideen Sailburua; Alain Lopez de Lacalle, Jose Luisen semea; Mari Paz Artolazabal, Jose Luisen alarguna; eta Maider Lainez, Andoaingo PSE-EEko idazkari orokorra. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Jende ugari hurbildu zen Lopez de Lacalleren izena daraman parkera.

Ekitaldian, Maider Lainez Andoaingo PSE-EEko zinegotziak hartu zuen hitza, batik bat. Jendaurrean, honakoak eduki zituen ondoan: Maria Paz Artolazabal Lopez de Lacalleren alarguna, honen seme Alain, Jaurilaritzako Maria Jesus San Jose Justizia eta Giza Eskubideetako sailburua, eta, Dani Garcia Andoaingo PSE-EEko zinegotzia ohia.

Alain Lopez de Lacallek esker-erak eman zizkien bertaratutakoiei. Lainezek, ia dena gaztelaniaz egin zuen diskurtsoan, omen-duaren nortasuna goratu zuen, lehenbiziko eta behin. Zeukan umorea eta zenbat maite zituen emaztea eta seme-alabak azpimarratu nahi izan zituen, eta halaber, bizi izan balitz, zenbat gozatu ahal izango zuen bilobekin.

Bere alderdi intelektuala azpimarratu zuen bereziki hitzartzean. “Elkarrizketa zuen gogoko, baita ere berak bezala pentsatzen ez zutenekin, izan ere, beste horien argudioak gogoan hartzen zituen, gero hausnartzeko eta bere ideiak hobetzeko”.

Indarkeriaren aurkako mezua

Lainezek indarkeria erabiltzearen aurkako diskurtsoa egin zuen. “Ideia@k ideiekin borrokatzen dira, eta argudioak argudio sendagoekin borrokatzen dira. Baina Jose Luisen zioen bezala, terrorerari ezin zaio terrorerarekin erantzun. Ezin gaitzke inoiz kiribil zentzugabe horretan sartu, sartuz gero, zaila baita hortik irtetea. Hortaz, gertakizunen orria igaroko dugu, eta horretan gabiltza bizikidetzaren mesedetan, baina horretarako, orri guztiak irakurri

behar dira, aintzat hartuta gertatu den guztia, terrorismoak sekula ez duelako justifikaziorik eduki”.

Alde horretatik, “indarkeria oraindik gaitzetsi ez dutenei” honako mezua luzatu zien: “aurrerapausoa eman dezaten existitzen diegu, izan daitezela ausartak, erailketek ez baitzuten justifikaziorik eduki. Terrorea ezin da terrorerarekin borrokatu, eta Jose Luisen erakutsi zigun bezala, tolerantzia eta askatasuna hitzarekin eta lumarekin defendatu behar dira”.

Espreski aipatu ez bazuen ere, ezker abertzalea hartu zuen bere kritiken jomugatzat, nagusiki. Aritz Otxandianok Fagor Taldeko iraunkortasun arduradunak egunotan jasan duen eraso eta horrek eragin dituen erreakzioak izan zituen hizpide, horretarako. “Azken egunotan, energia berriagarriaren gainean desberdin pentsatzeagatik pertsona batzuek jasan dituzten erasoak direla eta, modu harrigarrian irakurri dugu zenbait pertsona nola mintzatu diren desberdin pentsatzeagatik intimidatzearen eta presioa sartzearen estrategiaren gainean. Are gehiago, gizagabetzea aipatu dute, baina hortik harago ez dira joan, denok dakigunean nora eramane gaituen deshuminizazioak, zenbat sufritu dugun, eta horregatik gaitzetsiko ditugu eraso guzti horiek. Nahiko genuke iraganean gurekin egon izan balira, gaitzesteko orduan”.

Era berean, Lainezek Andoaingo gazteekin mintzatzearen premia azpimarratu zuen, “kontatu egin behar diegu zer gertatu den hemen, eta tolerantzia, elkarbizitza eta aniztasunaren balioak transmititu behar dizkiegu, Jose Luisen egin ohi zuen bezala”.

Droga-operazioa, Andoainen, Ertzaintzaren eskutik

Aurreko egunetako ikerketen ostean, egunotan, Ertzaintzak polizia-operazioa abian jarri du Andoainen. Hernaniko Ertzaintzetik zabaldutako prentsa-oharraren arabera, drogarekin trafikatzaren delitua egotzi diote pertsona bati. Antza, lan egiten zuen merkatalgunean bertan salmentan aritzen omen zen. Haren etxean, berriz, 150

gramo kokaina aurkitu dituzte. Ertzaintzak emandako datuen arabera, Andoainen gora egiten ari zen droga-trafikoa eta ikerketa-lanak Kale Nagusiko merkatalgune batera bideratu zituen: “Ertzaintzak 44 urteko gizon bat atxilotu du, lan egiten zuen Andoaingo saltokian drogarekin trafikatzeara leporatuta. Atxilotuari 150 gramo kokaina, doitasun-balantza bat, dosiak prestatzeko bilgarriak eta trafikatzaleek erabili ohi dituzten beste hainbat gauza atzeman dizkiote”.



ERTZAINZA

Miren Amuriza eta Unai Elorriaga, finalistak

Miren Amurizaren “Pleibak” eta Unai Elorriagaren “Francesco Pasqualeren Bosgarren Arima” dira aurtengo 111 Akademia Sariko finalistak. Saridunaren berri maiatzaren 19ra aldera emango du akademiak, behin azken bozketa txanda amaiturik. Hirugarren eta azken bozketa bideratzen ari da egun hauetan sariaren antolaketa-taldea. Au-

rretik, bada, bost eleberri izan ziren hautagaien artean. Finalera sailkatutako bi horiez gain, honako hiru hauek: Joan Agirrerren “Gizon barregarriak”, Uxue Alberdiren “Hetero” eta Beñat Sarasolaren “Coca Cola bat zurekin”.

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatzen duen ekimena da 111 Akademia Saria eta, azken urteotan, sari banaketa ekitaldia Amasako Hika txakolindegien egiten da. Hitzordua, beraz, laster izango da.



Eguraldi ederrarekin ospatu zen erromeria Azkorten, joan den maiatzaren 3an. **AIURRI**

Santa Krutz eguneko erromeria, Azkorten

Ohitura biziberrituz, erromeria izan zen Azkorte ermitan, Santa Krutz egunean: lehenik, meza nagusia izan da baselizan, eta, jarraian, eguraldia lagun, dantzatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek

Erredakzioa URNIETA

Goizeko mezaren ondoren, bertsolariak igo ziren oholtza gainera. Aurten ere Angel Larraña-

ga eta Aratz Igartzabal aritu ziren kantuan. Aurtengo erromeria, berriz, Urnietako Komerik taldeak girotu zuen. Udalak

antolaturiko bus-zerbitzuan, gehien-gehienak mezan bedeinkatutako erramua zeramaten etxera.



Urnietako
udala



Ansaren ebekoak, asteartean, Xoxokako bidean Joxe Ramonen aldeko oroigarrian. AIURRI

Lore-eskaintza, Xoxokako bidean, Ansaren omenez

1979ko Santa Krutz jaietan talde ultraeskuindarrek hil zuten Joxe Ramon Ansa Etxeberria gaztea. Hura oroitzeko ekitaldi bikoitza izan da, egunotan: lehena, jaietan; bigarrena, joan zen asteartean, Xoxokako bidean, gorpua azaldu zen tokian bertan

Xabier Lasa ANDOAIN/URNIETA
Santa Krutz jaietan “Ez gaude ahaztuta” aldarrikatu zuten Espigoian egin zuten ekitaldian. Nerea Etxezarreta txistulariak eta Unai Barrutia dantzariak aureskua egin zuten, eta Pablo Flores bonbo-jolea Jexux Ibañez akordeoi-jolea eta Javier Bueniki kaxa-jolea musikaz arduratu ziren. Miren Ansa eta Jaxone Usandizaga ekitaldiaren aurkezleek Joxe

Ramon Ansaren hilketarekin lotutako testuinguru historikoa gogorarazi zien bertaratu zirenei. Eta, horretarako, 70eko hamarkadaren amaieran eta 80ko hasieran Andoainen izan ziren indarkeriazko zenbait gertakari aipatu zituzten. Eraso horien guztien artetik, mingarriena, Joxe Ramon Ansa Etxeberriaren erailketa maiatzaren 6an, izan zela gogorarazi zuten, “Santa Krutz

jaietatik etxera zihoala, igande goizaldean izan zen hori”.

Lore-eskaintza, Xoxokako bidean
Maiatzaren 6an, asteartearekin, lore-eskaintza egin zuten Ansa hil zuten lekuan, Xoxokako bidean, Azkonobieta baserritik gertu. Senitartekoak, adiskideak eta Andoaingo Udal ordezkariak elkartu ziren bertan.



Xoxokako eskola zaharrean egin zuten bertso-bazkaria, hilaren 3an. AIURRI

Xoxokarekin lotura berezia duten bertsolarien saioa

Nerea Ibarzabal eta Jexux Mari Irazu kantuan aritu ziren, Santa Krutz egunean, Xoxoako eskola zaharrean

Erredakzioa URNIETA

40 lagun elkartu zen Xoxokako auzo elkarteak antolatutako bazkarian. Bazkalostea osatzeko saio bikaina egin zuten Nerea Ibarzabal eta Jexux Mari Irazu bertsolariek. Biek ere lotura berezia dute auzunearekin. Izan ere, Nerea Ibarzabal ez da oso urruti bizi eta Jexux Mari Irazuk

ondotxo ezagutzen ditu auzotar gehienak, makina bat aldiz izan baita auzoko jaietan kantari. Aurreko larunbatean itzuli zen berriro Goiburura, eta kontu ugari biziberritzeko aukera baliatu zuen.

Antolatzaileak, bertsolariak eta bertsozaleak pozik etxeratu ziren.



Nerea Ibarzabal eta Jexux Mari Irazu, kantuan. AIURRI

MAIATZAK 12, ASTELEHENA. 18:00etan / GALARRETA JAI ALAI

LEHEN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA

URRIZA · LARRAÑAGA vs EZKURRA II · JUANENEA

BIGARREN PARTIDA 2 SET, 15 TANTORA • 3. SETA, 8 TANTORA

SEGUROLA · AZPIROZ vs ALDABE · BARRENETXEA IV

SARRERAK ENTRADAS

QR CODE

ERREKONTARI

etbi

5

4

3

2

1

ORNA MENDI

Herritartekari Udala

Elkarrizketak

sukia

Orona

VOLVO

AIURRI



Parte-hartze handiko jaiak

"Ondo pasa Santakruzak, hasi eta buka", Punttuka bertso eskolakoek amaiera hori eman zioten pregoian botatako bertsoari. Eta, egia esatera, bete-betea asmatu zuten. Hasi eta buka, festaz gozatzeko prest zegoen jendetza ibili baita kaleetan



Bandera arbolteza, Urki dantza taldeak aurtan txertatu duen berrikuntza Santa Krutz egunean. AIURRI



Punttuka bertso eskolaren 15 urteak ospatu zituzten jaien hasierako pregoian. AIURRI



Ane Otamendi eta Jon Gabirondo Harri txikien desafioa irabazleak. AIURRI

Erredakzioa ANDOAIN

Bost eguneko iraupena izan duten Santakruzetan, dozenaka hitzordu izan da Andoainen. Eta, gehienetan, sentimendu bat gailendu da: jaiatzeko grina. Lehen egunetik hasita, eguzkia irteten bitartean luzatu zen jaiak. Gau-txorien azken urteotako bilkura jendetsuena izan zen, ikustea besterik ez dago Aiurrik zabaldu zuen taldeko argazki erraldoia. Maiatzaren lehenak ekitaldiz beteriko egitaraua zekarren eta horietako gehienetan ere parte-hartze handia izan zen. Lasterketak eta erreka jaitziera, esaterako, partaide eta ikusle ugari bereganatu zituzten. Auzo bazkaria egiteko, bestalde, Kale Nagusiaren tarte zabala behar izan zen hurbildu ziren guztiek

tokia izan zezaten. Ostiralean ospatu zen Kuadrillen Eguna. Bazkarian, 600 lagunetik gora, eta arratsaldean, bluxez beteriko txosnagunea. Jaiak hartu zuen dimentsioa bi datu horiekin laburbildu daiteke. Larunbata izan zen egun seinatua: Santa Krutz eguna. Ohi bezala, Urkiren dantza emanaldia ikusgarria izan zen. Inguru hartan elkartu zen jende gehien, eguerdi aldera. Baita arratsaldean ere, Distopia elektrotzarangaren kalejira. Igandean, sagardozaleek bete zuten Zumea plazako karpia. Talo-jatea, garagardoa eta Maixa eta Ixiar-Malkogarriyak taldeen emanaldi bereziak biribildu zuten jaiak. Zezen-suzkoarekin eta Andoingo Martxarekin, akabo aurtengoak!



Kuadrillen eguneko jolasak, Bekoplazan behera. Hainbat tokitan egin zituzten bazkariari ekin aurretik. AIURRI



600 lagunetik gora elkartu zen Kuadrillen Eguneako bazkarian, Zumea plazako olanapean. AIURRI

Kuadrillen Eguneako antolatzaileen kexa

Mezua zabaldu dute sareetan: "Lotsagarria iruditzen zaigu 10 pertsonako gazte taldea hilabeteetan lanean ibili, 620 pertsonentzat bazkaria eta egun osoa antolatu ondoren, jaso genuen laguntza eskasa. Gutxi batzuk izan ziren laguntza eman zigutenak. Abixu asko eman ziren bai momentuan, bai aurretik eta hala ere, jendeak ez zuen laguntzeko prestatutasunik erakutsi".



Txalotu beharreko ekimenak



Makaldegia, aurtengo jaietan. AIURRI

Barraken eremua, trafikoari itxita Andoainera sartzeko eta irteteko auto-gidarien egunerokoan eragin zuen Andoaingo Udalak hartuako neurriak. Bistakoa da, ordea, oinezkoen ikuspegitik neurri oso zuzena izan zela.



Maixa eta Ixiar, Malkogarriyak taldekoekin batera. AIURRI

Maixa eta Ixiar, jaiaren amaierako sorpresatxoa Jai Batzordeak sustatu zuen Maixa eta Ixiar eta Malkogarriyak taldeen arteko bilkura eta zinez ederra izan zen bikote ezaguna berriro oholza gainean ikustea. Jaiari amaiera emateko ideia bikaina.



Gautxorien argazkia, hilaren lehenean. AIURRI

Jendetza, jaietako ekitaldi gehienetan Asteazkenean hasita, festazale ugari elkartu da Santa Krutz jaietan. Egunez hasi eta ordu txikiak arte, ekitaldi gehienetan, jende asko ibili da. Gautxorien argazkia da horietako bat.



Eskopeteroak, txistulariak eta udal ordezkariak, Santa Krutz egunean. AIURRI



Olagain Udal Txistulari Elkartekoen gonbidatu bereziekin antolatu zuten aparteko emanaldia, jaien hasieran. AIURRI



Aurtengo erreka jaitseran ohikoan baino partaidetza handiagoa izan da. AIURRI



Tirolina, Espigoian. Aurtengo berrikuntza nabarmena izan da. AIURRI



Joxe Ramon Ansaren etxeak, Santa Krutz jaietan egin zieten omenaldi-ekitaldian. AIURRI

www.aiurri.eus

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



**Jaietako
atal berezia**



Batzokia elkarteko Irulegi eta Guedejo pozarren zeuden bakailao-lehiaketa irabazi berritan. AIURRI



Gaztelutxok irabazi du aurtengo pintxo-lehiaketa. Pozarren hartu zuten albistea. AIURRI



Bermouth musikakua DJ Ezekielek girotu zuen. Eta, lanean, Jai Batzordeko kideak eta lagunak aritu ziren. AIURRI



Dianumekoak beren etxeko sagardoa banatzen aritu ziren. AIURRI



Basataloak lan eta lan aritu ziren, egun osoan, maiatzaren 4an. AIURRI



Zumeatarrak-ek lantalde handia elkartu zuen Santa Krutz Herri Lasterketa bideratzeko. AIURRI



Brew and Roll artisautzako garagardoko kideak, igande arratsaldean. AIURRI

Igoerarekin amesteko garaipen baliotsua

FUTBOLA Roteta ordura arteko liderra garaitu zuen Euskaldunak, Ubitarten, eta igoera eskuratzeko ametsa hortxe dago. Are gehiago, asteburu honetan, Orioko eta Roteta elkarren aurka lehiatuko direla jakinda. Emozio handiko asteburua izango da

Erredakzioa ANDOAIN

Euskalduna taldeak Ohorezko Erregional Mailara igotzeko aukera gertu bezain urrun du. Gertu, azken hiru partidak jarraian irabazi dituelako. Santa Krutz egunean, Roteta liderra 2-1 garaitu zuten eta animoak goi-goian dituzte. Baina, era berean, urrun du sailkapenean gertu dituen aurkariak ez baitaude etsitzeko prest. Liga osoan lehia estuan ari dira Euskalduna, Roteta eta Orioko taldeak eta emozio handiko azken bi jardunaldi geratzen dira. Gogoan izan igoera eskuratzeko bi bide daudela: zuzenean, liga irabazita; edo, bi multzoetako bigarren



Udan hasita, lan nekaezina egiten ari dira Euskaldunako jokalaria. AIURRI

sailkatuen arteko play-offa gaindituta. Euskaldunak gogor borrokatuko du bi aukera horietako baten bila.

Euskaldunaren plana aurrera doa

Hilabete atzera, Ander Setien kapitainak honako hau adierazi zion Aiurri astekariari: "Lautik lau irabaziz gero, helburua lortuko dugu". Lehen biak, zailenak, irabazi zituzte. Santo Tomas igoerako lehiatik kanpo utzi eta, ondoren, Roteta liderra garaitu dute. Beraz, plana aurrera doa. Sanpedrotarra eta Allerruren aurkakoak irabazteko moduko partidak dira: lehen itzulian biak irabazi zituzten.

Rotetak etxetik kanpo galdu ditu azken bi partidak

Otsailean eta martxoan ligako partida guztiak irabazi zituen Rotetak: 9 partida, jarraian! 27 puntu horiei esker, zuzenean igoera eskuratzeko hautagai nagusia zirudien. Baina joera ona aldatzen hasi da eta etxetik kanpo jokatu dituzten azken bi partidak galdu zituzte. Zehazki, Astigarragan eta Andoainean.

Oriokok Rotetaren zelaian jokatu du, asteburuan

Euskalduna eta Roteta izan dira lidergotzan, ia liga osoan, baina orain lehen postua oriotarrena da. Noiz arte, ordea? Izan ere, asteburu honetan Rotetaren aurka jokatu dute. Askotxo dago jokoan eta galtzen duenak igotzeko aukerak galdu ditzake. Lehen itzulian, Oriokok etxean 2-5 galdu zuen Rotetaren aurka.

FUTBOLA

GORENGO MAILA, 28. jardunaldia:
EUSKALDUNA-ROTETA 2-1

SAILKAPENA

1	ORIOKO	61 p.
2	ROTETA	59 p.
3	EUSKALDUNA	58 p.
4	SANTO TOMAS LIZEOA	48 p.

GORENGO MAILA, 29. jardunaldia:

SANPEDROTARRA-EUSKALDUNA
lgandea, 11. 17:30.
ROTETA-ORIOKO
Larunbata, 10. 18:00.

GORENGO MAILA, 30. jardunaldia:

EUSKALDUNA-ALLERRU
ORIOKO-SANPEDROTARRA
DANENA-ROTETA
Maiatzak 17-18.

Finalaurrekoa jokatu dute, asteburuan

FUTBOLA Urte bikaina egiten ari da Urnieta KE infantil 1. mailako taldea. Denboraldi guztian ez dute partidarik galdu eta asteburu honetan txapeldunen faseko finalaurrekoa jokatu dute Donostiako Puio zelaian



Urnieta KE infantil 1. mailako taldeko jokalaria gehienak ageri dira argazkian. URNIETA KE

Erredakzioa URNIETA

Txapeldunen fasea jokatzeko oso talde gutxiaren esku dagoen aukera da eta urnietarrek, aurtan, meritu osoz jokatu dute. Izan ere, denboraldi osoan ez dute partidarik galdu. Oso erregularrak izan dira eta, gainera, denboraldia bikain amaitu dute. Partida bakarra berdindu eta gainerakoak irabazi: marka da, gero! Berdinketa bakarra Texasen aurka izan zen ligako 9. jardunaldian. Aurreko asteburuan amaitu zen liga eta itzuliko partidaren Urnietak 0-8 garaitu zuen Lasarte-Oriako taldea.

Gerta ala gerta, denboraldi biribila izango da. Baina behin txapeldunen fasea iritsita, helburua irabaztea da. Etxekoen eta lagunaren animoak ez zaizkie faltako, larunbat honetan, Donostiako Puio zelaian jokatu dute partidaren.

Taldeko jokalaria

Argazkian, taldeko jokalaria gehienak ageri dira. Honatx, izen-abizenak: Ignacio Goikoe-txea, Asier Arana, Gorka Lopez, Xabi Agirre, Beñat Gonzalo, Unax Ramos, Alex Brea, Ando-

ni Rosco, Ander Egaña, Unax Hernandez, Ekaitz Nieto, Marcos Garcia, Nico Rosco, Abraham Martin, Ekaitz Alzuri, Marcos Jerez, Marc Prudencio, Aimar Roman eta Markel Ezama. Argazkian ez dira ageri baina taldeko kide dira ere Arkaitz Rodriguez eta Eñaut Goñi. Aimar Lizaso eta Gorka Vega dira entrenatzaileak.

FUTBOLA

INFANTIL 1. MAILA:
TEXAS-URNIETA KE 1-8

SAILKAPENA

1	URNIETA KE	46 p.
2	INTXURRE	34 p.
3	IDIAZABAL	34 p.
4	KOSTKAS	24 p.

TXAPELDUNEN FASEA. Finalaurrekoa:

VASCONIA-URNIETA KE
Larunbata, 10. 10:00. Puio futbol zelaia.

ETXEKOEN ETA LAGUNEN ANIMOAK EZ ZAIZKIE FALTAKO, LARUNBAT HONETAN, PUIO ZELAIAN

Kopako finalistaren zain dago Urnieta KE taldea

FUTBOLA Gorengo Mailako kopak, bi jardunaldiren faltan, ziurra du finalistetako bat eta hori Urnieta KE taldea da

Erredakzioa URNIETA Seniorren Gorengo Mailan, martxoaren amaieran, Urnieta KE igoera fasea jokatzeko ateetan geratu zen. Kopari heldu zioten, jarraian, eta jokaturako partida guztiak irabazi dituzte. Joera on

horri esker, bi jardunaldiren faltan, kopako finala jokatzeko txartela ziurra dute. Aurkaria nor izango den jakitea falta da. Beste multzoan lehia estuagoa da eta, ziurrenik, Ilintxa eta Usurbil artean erabakiko da.

FUTBOLA		
SAILKAPENA		
1	URNIETA KE	18 p.
2	SANTO TOMAS LIZEOA	10 p.
3	ZARAUZ B	10 p.
4	MARIÑO REAL UNION B	7 p.
5	ATOTXA RIVER	1 p.

KOPA, 9. jardunaldia:
ATOTXA RIVER-URNIETA
Igandea, 11. 15:30.

KOPA, 10. jardunaldia:
URNIETA-MARIÑO REAL UNION B
Maiatzak 17-18.



Gorengo Mailako Urnieta KE taldea. URNIETA

Igoera faseko ateetan

ESKUBALOIA Euskal Ligan sendotzen ari da Leizaran Lanbroa Taberna taldea. Andoaindarrek denboraldia lehen postuetan eman eta gero, igoera fasean aritzeko txartela eskuratu zuten. Aurreko larunbatean Ereintza Bitek-en aurka ezin izan zuten garaipena eskuratu (19-15). Igande honetako finala eta, ondorioz, Zilarrezko ligan aritzeko aukera gertu izan dute. Zorionak!



LEIZARAN



Galarretako hainbat jokalaria. ORIAMENDI

Aurrera doa Erremontari txapelketa, Hernaniko Galarretan

ERREMONTA Aldabe-Barrenetxea (Oialume Zar) eta Ansa II-Zubiri (Aburuza) aurrea hartzen ari dira txapelketan

Erredakzioa URNIETA

Sagardoaren Txapelketa une gozoa erakusten ari dira Aldabe eta Barrenetxea. Sailkapenean atzetik dituzte Ansa II eta Zubiri. Eta Urrizak eta Larrañagak ez dute oraindik punturik eskuratu.

ERREMONTARI		
SAILKAPENA, 2. JARDUNALDIA:		
1	ALDABE-BARRENETXEA IV	7 p.
2	ANSA II-ZUBIRI	4 p.
3	SEGUROLA-AZPIROZ	1 p.

3. JARDUNALDIA:
Maiatzak 12, astelehena. Galarreta



AIURRI

Abiatu da Kontzejupekoa

PILOTA Gazte Festen bezperako asteetan, hemen da Kontzejupeko txapelketa: aurre benjaminak, benjaminak eta alebinak ariko dira jokoan. Ligaxka egingo da hasieran, astearte eta ostegun arratsaldetan, sailkapenekin hasi aurretik. Ekinaren 1ean izango da finala, eguerdian. Herritar guztiei zabaldutako hitzordua da.

Gipuzkoako Kopa

ESKUBALOIA Kadete mailako Urnietako Iñaki Mekanizados taldeak aise irabazi zuen Ereintza Beissierren aurkako partida (46-24). UKEkoen eraso-erakustaldi bikaina izan zen Kopan. Pauso handia eman dute txapelketako finalaurrekoak jokatzeko. Kopan ere, senior mailako Urnieta Artola Harategiak partida galdu zuen Ordiziaren aurka (26-22).



UKE

Ganbara, multzoko onena

SASKIBALOIA Junior mailako partaidetzako bigarren multzoan berdintasuna izan da nagusi denboraldi amaierako ligaxkan. Azken partida Easoren kantuan irabazi zuten (58-66) eta, horri esker, multzoko lehenak izan dira. Bederatzi partidatan zortzi garaipen lortu dituzte eta liga osoan gertu izan dituzte Hondarribia eta Debasket.



GANBARA

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

EUSKARALDIA

URNIETA Bertso-pilota

Kanatri, Nerea Elustondo eta Unai Gaztelumendi. Eskuz binaka, Alberdi-Odrizola eta Urmeneta-Elizegi.

Maiatzak 9, ostirala.

19:00 Haurren partidak.

20:00 Bertso-pilota saioa.

URNIETA Txapa banaketa

Euskaraldia 15ean abiatuko da eta ordurako paparrean eraman behar dira Ahobizi zein Belarriprest txapak. **Maiatzak 9-11.**

ANDOAIN Antzerkia

"Nahastumbury", Barrexerkaren eskutik. Kafetegi batek izan duen bilakaeran oinarritzen da lana.

Maiatzak 8, osteguna.

19:30, Bastero Kulturunea.

ANDOAIN Txapa banaketa

Ahobizi eta belarriprest txapak.

Maiatzak 9, ostirala. 17:30-21:00.

Goikoplazan.

Maiatzak 10, larunbata. 11:00-13:30.

Zumea kalean.

ANDOAIN Xaxafest

Xehetasun gehiago, 3. orrialdean

Maiatzak 9, ostirala.

17:30ean hasita, Goikoplazan.

AURKEZPENA

ANDOAIN Liburu-aurkezpena

Joseba Bayer idazleak "Viendo la vida pasar" liburua aurkeztuko du.

Maiatzak 15, osteguna.

18:00, Urigain.



Axeri Dantza aspaldiko irudia. AIURRI

ANDOAIN Axeri Dantza, erakusketaren irekiera-ekitaldia

50 urte atzera, Lizar Makil dantza taldearen eskutik, berreskuratu zen Axeri Dantza. Hurrengo belaunaldiak segida eman zioten eta aurreko efemeride bikoitza ospatzen da: Axeri Dantzaren berreskurapenaren 50 urteak eta parekide bilakatu zeneko 25 urteak.

Maiatzak 9, ostirala. 18:30, Bastero Kulturunea.

KONTZERTUA

ANDOAIN Ensemble Moxos

Bolivia indigenaren arte-adierazle nagusietako bat da. Euskal Herrian, Espainian, Frantzia eta Alemanian bira egiten ari dira. Geldialdietako bat dute Andoainean.

Maiatzak 15, osteguna.

19:30, Bastero Kulturunea.

IKUSKIZUNA


ANDOAIN Aztia

Antzerkia, musika eta dantza Don Inorrez eta Metrokoadroka taldeen ikuskizun berrienean. Izen bereko diskoan du abiatuntua egitasmoak, gerora ikuskizun bilakatu dena.

Maiatzak 16, ostirala.

19:30, Bastero Kulturunea.

ZINEMA



ANDOAIN

BASTERO

Un funeral de locos

Maiatzak 10, larunbata. 19:30.
Maiatzak 11, igandea. 19:30
Maiatzak 12, asti.


17:00, 19:30.

Mision panda en Africa

Maiatzak 10 eta 11. 17:00.

Kayaka inka gerlaria

Maiatzak 17 eta 18. 17:00.



SINOPSISIA

Un funeral de locos

Zuzendaria: Manuel Gómez Pereira. **Aktoreak:** Quim Gutierrez, Ernesto Alterio, Gorka Otxoa, Inma Cuesta, Hugo Silva, Esmeralda Pimentel, Belen Rueda, Secun De La Rosa, Arturo Valls, Santi Ugalde, Antonio Resines... **Herrialdea:** Espainia. **Urtea:** 2025. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 95 m.

Maiatza, Euskaraldiaren hilabetea Urnietan

Herriko eragile-taldeak makina bat hitzordu prestatu ditu ariketa erraldoiari begira

Erredakzioa URNIETA

Datorren astean abiatuko da Euskaraldia.

Bertso-pilota, maiatzak 9

19:00 Haurren partidak.

20:00 Bertso-pilota saioa.

Aurkezpena, maiatzak 14

18:30 "Lourdes Iriondo, isilarazita-ahotsa". Hizlaria: Jon Martin. Musikariak: Irati Odriozola eta Ainhoa Ansa.

Zine-foruma, maiatzak 15

19:00 Laburbira zine-foruma.

Mendi-irteera, maiatzak 16

21:00 Adarrara, gaez, Besabitik.

Festa-giroa, maiatzak 17

17:00 Festa: Euskal Cluedo, Magiaren pasabidea, txokolatada, txapa tailerra.

Jaia, maiatzak 18

11:00 Erraldoien irteera Plazido Muxikatik.

12:00 Egape DTren emanaldia.

12:30 Hamaikakoen aurkezpena.

14:00 Herri-bazkaria.

18:00 Ttipika taldearen erromeria (San Juan plazan).

Amaierako festa, maiatzak 19

Xoxokan izango da ekitaldia.

Kale bereko dendarien aitortza

Zumea kaleko Nerea arrandegiak hilaren 2an itxi zituen ateak. Negoziaren arduradun aritu da Nerea Sarasola Saldias. Ostiral eguerdian Zumea kaleko zenbait merkataririk arrandegira hurbildu zitzaizkion, eta ezusteko polita eman zioten. Lore-sorta eman zioten, ekitaldi hunkigarrian.



Zumea kaleko dendariak, Nerearekin batera, apirilaren 30ean. AIURRI



Aisialdia eta euskara uztartzen ditu Parketarrak egitasmoak

Aste honetan abiatu da edizio berria, 3 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendurikoa

Erredakzioa ANDOAIN
Maiatzean, Goikoplazan eta Zumea plazan, haurren aisialdia osatzeko hitzorduak dira. Parketarrak izenekoa, helburu nagusia euskaraz jolastea da. Parte hartzeko, gainera, ez da aurretik izena eman behar. Bertaratu eta parte hartu, oso erraza da.

Asteartero eta asteazkenero
Hitzorduak astearte eta asteazken arratsaldetan izango dira, udalerriko bi plaza horietan.

Zehazki esanda, asteartero, Goikoplazan eta, asteazkenero, Zumea plazan. Adinaren arabera sailkatuta, bi taldetan banatuko dituzte:

- Zabu zibu. Ordutegia: 17:15-18:15. Adin-tartea: 3-5 urte. Helburua euskaraz jolastu ahal izateko tresnak eskaintzea da, beraz, behar beharrezkoa da haurrak guraso edo helduren batekin etortzea eta jolas-tea.
- Txirrinxon. Ordutegia: 18:15-19:15. Adin-tartea: 6-9urte.

Odol-emaileak, Andoainen

Maiatzaren 12an, astelehenarekin, andoaindarrek odola emateko txanda izango dute, Osasun Etxean, 16:30ean hasi eta iluntzeko 20:10ak arte. Egunean bertan, goizez, hitzordua hartu beharko da, 943 007 884 telefonora deituta. Azken alditan nabarmendu dutenez, odola ematea beharrezkoa da, erreserbak jaisten ari baitira.

Larunbat honetan, kontzertua San Martin Tours elizan

Ana Belen Garcia piano-jotzailea, Cum Jubilo abesbatza eta Luis Pablo Urquijo zuzenean ariko dira

Erredakzioa ANDOAIN
Kantu korala gogoko dutenek hitzordu polita dute, larunbat honetan iluntzeko 20:00tan hasita, Andoaingo Goikoplazako elizan.

Ana Belen Garcia piano-jotzailea, Cum Jubilo abesbatza eta Luis Pablo Urquijo zuzenean ariko dira. Abesbatzak erreper-torio zabala du eta, askoren artean, Franz Schubert-en meza alemaniarra, Charles Gounod-en “messe aux Chapelles” edo eta Juan Vilasecaren Pio X.aren meza piezak interpretatu ditu. Hogei urte atzera sortu zen abesbatza eta, azken urteotan, Sergio Pedrousoren zuzendaritza-pean ari dira lanean. Eskarmentu handia hartu dute han-emenka egindako emanaldietan. Euskal Herrian, Espainian eta Erronako San Pedro Basi-likan aritu dira, askoren artean.



Ana Belen Garcia.

San Martin elizan makina saio eskaini dituen Ana Belen Garcia Andoaingo organo eta piano-jotzailea izango da gainerako artisten bidelagun egokia.

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak, Mara!
Handitzen handitzen, hasi naiz handitzen, txikia izanik... Askok maite zaitugu, Mara! Etxekoak.



ANDOAIN
Zorionak, Pello!
Apirilaren 29an 14 urte! Gozatu une bakoitza, egin dantza eta barre franko, eta jarraitu hain paregabea izaten.



ANDOAIN
Zorionak, Natxo
Maiatzaren 10an 7 urte zoragarri beteko dituzu, Natxo! Ondo-ondo pasa. Muxu potoloak, etxekoak.



ANDOAIN
Zorionak, Leire Rekalde
Maiatzaren 6an 36 urte bete zenituen. Askok maite zaitugu, muxu handi bat etxekoan partez, eta pozik biz!!!



ANDOAIN
Zorionak, Jon Etxezarreta Jauregi
Jonex 12 urte bete zituen maiatzaren 4an. Zorionak eta muxuak etxekoan partetik.



ANDOAIN
Zorionak, Oier
Maiatzaren 11n Oier Agirrek 13 beteko ditu. Segi betiko moduan jator-jator eta zoriontsu. Muxuak.



ANDOAIN
Zorionak, Jare
Maiatzaren 12an Jarek 4 urte beteko ditu. Muxu handi bat etxekoan partez.



ANDOAIN
Zorionak, Ane Amutxastegi
Urte askuan! maiatzaren 3a ondo ospatu zenuelakoan, muxu bat. Etxekoak.

ZilegiAstea

HARTU ETA ENAN

URNIETA

MAIATZAK 12-15

Astelehena 12	Asteartea 13	Asteazkena 14	Osteguna 15
	ARIKETA TERAPEUTIKOAK Gai-emaileak: Ane Marín, Ayda Añel Fisioterapia-Esteopatia Ordua: 10:00 Lekua: Kiroldegiko bar gunea	ZINEMA LENGOAIA Gai-emaileak: Igor Salutregi Ordua: 10:00 Lekua: Lekala	
		EUSKAL KANTAGINTZA BERRIAREN HISTORIA LABURRA Gai-emaileak: Andoni Tolosa "Morau" Ordua: 15:30 Lekua: Lekala	
MAGIAREN MAGIA (TAILERRA) Gai-emaileak: Andoni Martinez Ordua: 13:00 Lekua: Lekala	UDABERRIKO PINTXOAK Gai-emaileak: Juani Vago Ordua: 16:30 Lekua: Ekartearen aurreko sukaldes (Z. solairua)	ROL JOKOAK Gai-emaileak: Nahiko Arraiza Ordua: 16:00 Lekua: Kiroldegiko bar gunea	TXALAPARTA TAILERRA Gai-emaileak: Txakurtxo txalaparta taldea Ordua: 19:00 Lekua: Plazido Mendia Plaza / San Joan Plaza (zohazteke)

IZENA EMATEKO

663 043 314

zilegi@zilegi.es

Zilegi
eskola

Urnieta
udala

prezirikatu

Instrumentuen probaketa saioa

Matrikulazio kanpainari ekin dio Andoaingo Udala Musika Eskolak. Ostegun honetan-maiatzak 8-, arratsaldeko 17:30ean hasita, “Ate irekiak kalean” ekimena izango da Plaza Morean. “Instrumentuak era librean probatzeko aukera izango da, bereziki, helduei begira” adierazi dute ekimenaren antolatzaileek.



Asteazken goizean, 09:40ak aldera, Hiribusa trenbidearen azpikaldeko pasabidetik igaro zen. AIURRI

Pasabidea, zabalik

Urtarrilaren amaieratik itxita zegoen, Kaletxikin, trenbidearen azpiko pasabidea. Eragozpena ez zen txikia, auzunetik Goikoplazarantz autoan gerturatzeko aukera nabarmen zailtzen zelako. Lan guztiak amaituta ez badaude ere, zabalik da berriro

Erredakzioa ANDOAIN

Ziako erreka berbideratzeko lanak eta Ama Kandida etorbideko bizigunearen eraikuntza burukomin handi samarra izaten ari dira Bazkardoko, Kaletxikiko, Buruntzako eta Leizotz aldeko bizilagunentzat. Auzo herria da Andoain eta joan-etorri asko autoan egiten dira. Hilabeteotan, inguru hartako bizilagun eta langileentzat batera eta bestera ibiltzea ariketa makur samarra bilakatu da.

Zorionez, denboraren poderioz, gauzak bideratzen ari dira. Lan handia dago egiteko oraindik eta, aste honetan, neurri aringarria hartu dute: Kaletxikiko trenbidearen azpiko pasabidea zabaldu dute. Lasaitu ederra hartu dute bizilagun eta herrikide askok, Kaletxikin behera Goikoplazarantz igotzeko hura baita bide eraginkorrena.

Asteartean, eguerdiko 14:00ak aldera, zabaldu zuten pasabidea. Irekierarekin batera, Kaletxikirantz iritsi den gidariak orain badu Bazkardoraino joateko

aukera. Kontrako norabidean, aldiz, oraindik ez da posible. Kaletxikiko pasabidea zabaltzean Hiribusaren ibilbidea eta ordu-tegia eguneratu dituzte.



Espaloia, bidegorria... Ama Kandida etorbidea itxura berria hartzen ari da. AIURRI

Lehengora itzuli da Arantzibia



Arantzibia plaza azpiko errepidea. AIURRI

Arantzibia plazako trafikoa lehengora itzuli da Lurrazpiko pasabidea irekitzearekin batera, lehengora itzuli da trafikoa inguru hartan. Berriro norabide bakarrekoa da eta, halabeharrez, Kaletxikitik igaro behar dute auto-gidariak.



Udaltzaingoa behin behineko seinaleztapena kentzen. AIURRI

Ohartarazpena eta aldaketa egin zuten udaltzainek Behin pasabidea irekita, Udaltzaingoa Arantzibia plazako eta kaleko eskaratzeetan bandoa zabaldu zuen. Oharra argia zen: zirkulazioa eta aparkalekuak betikora itzuli zirela.



Putzuak zapaldu eta ura espaloiraino iristen zen, Gudarien etorbidean. AIURRI

Putzu handiak, astelehen goizeko protagonistak Astelehena egun euritsua izan zen, bereziki, goiza. Ondorioz, Gudarien etorbideko pasealekua arrisku bizikoa bilakatu zen oinezkoentzat: Bide estuan, zuloz beteriko errepidean, putzu handiak sortu ziren.